

## KANALAK

Oso garrantzitsua da sortu behar dugun aplikazioa bezeroari heltzea eta helaraztea. Horretarako, hainbat teknika eta bide existitzen dira, baina kasu honetan erabiliko ditugunak sare sozialak izango dira. Honek abantaila asko ditu teknologiaren garapena dela eta. Izan ere, ia pertsona guztiek erabiltzen dute sare sozialak beraien egunerokoan. Hauen bidez, aplikazioaren hedapen zabalagoa lortuko dugu, jende gehiagok aplikazio hau ezagutzeko helburuarekin eta honela erabiltzaile gehiago izango dugu.

Honez gain, erakargarriak izaten ere saiatuko gara, bezeroarentzako atsegina izan dadin.



Azken hori lortu ahal izateko, sare sozialetan emango dugun itxura asko zaindu behar dugu. Erakargarria eta diseinu modernoa izan behar du gure sare sozialetako profilak, gure bezero prototipoak konbentzitu ahal izateko. Geroz eta mugikor gehiagotan izan gure aplikazioa, hobe izango da, gure helburu nagusia lortzen izango ginelako. Horretarako, taldekideen artean ahalik eta diseinu onena lortuko dugu, aplikazioa zertan datzan argi uzten duena eta instalatzera gonbidatzen zaituena. Hau lortu ahal izateko, logo, kolore, eta beste hainbat baliabide erabiliko ditugu ulergarria eta adierazgarria izan dadin.